

HIZKUNTZA-POLITIKA



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	1
SARRERA.....	2
1. ERAKUNDEAREN IRUDIA	3
2. BEZEROEKIKO (PERTSONA FISIKOAK) ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK.....	3
3. BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK	3
4. PERTSONEN KUDEAKETA.....	3
5. KANPO-HARREMANAK	3
6. KUDEAKETA-SISTEMA.....	3
1. ERAKUNDEAREN IRUDIA	4
4. PERTSONEN KUDEAKETA.....	6
5. KANPO-HARREMANAK	6
6. KUDEAKETA-SISTEMA.....	7

SARRERA

Iraurgi Lantzen sortu zen une beretik etengabe aritu da euskararen normalizazio-prozesuan bidea egiten. Hizkuntzen erabilera arautzeko irizpideak modu naturalean jorratu izan dira Iraurgi Lantzenen betidanik.

Hala ere, 2009. urtean, hainbat hausnarketaren ondoren, modu naturalean egindako bide hori arauetan jasotzeko premiaz jabeturik, hizkuntza-politika esplizitatzen hastea erabaki zen. Hasierako hizkuntza-politika 2011n onartu zen orduko Erreferentzia Marko Estandarra oinarri hartuta. 2022an, eredu zaharra Erreferentzia Marko Estandar berrira egokitu da.

Iraurgi Lantzeneko Hizkuntza Politikaren helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Iraurgi Lantzeneko hizkuntzen erabilerearen nondik norakoak zehaztea: hizkuntzekiko jarraibideak arautzea, erakundetzea eta ofizialtzea orain arte egindako ibilbideak atzerapausoak saihesteko.
- Lanean hizkuntzekin nola jokatu behar dugun zehaztea eta eguneroko lan jardunerako lagungarria izatea.
- Iraurgi Lantzenek duen hizkuntza-normalizaziorako proiektua osatzea eta indartzea.

Euskara normalizatzeko gizartea egiten ari den ahaleginean gure ekarpena egitea eta gizartearen sentsibilizazioa lortzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da Iraurgi Lantzen osatzen dugun langileen parte-hartze aktiboa eta inplikazioa. Azken batean, Iraurgi Lantzeneko hizkuntza-politika gure helburu sozial, misio eta balioekin uztartzen da: Urola Erdiaren sustapenean, garapenean eta bertako biztanleen bizi-kalitatean eragin zuzena baitu.

Ondoren jasotako politikak batetik, sendotu egingo du praktikan erabiltzen diren hainbat hizkuntza-irizpide, eta, bestetik, egoera berriei egokitzeko bide-erakusle izango da.

1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

- 1.1 Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak.
- 1.2 Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak.
- 1.3 Ingurune digitala.

2. BEZEROEKIKO (PERTSONA FISIKOAK) ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK

- 2.1 Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.
- 2.2 Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harremanak produktua edo zerbitzua eskaintzeko orduan.

3. BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

- 3.1 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia.
- 3.2 Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala.
- 3.3 Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala.
- 3.4 Baliabide informatikoak

4. PERTSONEN KUDEAKETA

- 4.1 Pertsonen kudeaketa
- 4.2 Laneko prestakuntza

5. KANPO-HARREMANAK

- 5.1 Administrazioa
- 5.2 Erakunde pribatuak: Bezeroak (pertsone juridikoak), finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.
- 5.3 Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.

6. KUDEAKETA-SISTEMA

- 6.1 Estrategia
- 6.2 Bezeroak edo herritarrak eta produktua edo zerbitzua
- 6.3 Pertsonak

1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

1.1 Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak.

Iraurgi Lantzeneko barne errotulazioa euskaraz egingo da eta kanpoaldeko errotulazioa, aldiz, bi hizkuntza ofizialetan jarriko da. Errotulazioaren baitan sartzen dira kanpo-errotulua eta eraikineko errotulu guztiak: segurtasunaren inguruak, aitortza-agiriak, panelak, publizitatea, eskaintzak eta bezeroari edo herritarrari zuzendutakoak bi hizkuntzatan ezarriko dira.

1.2 Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

Irudi korporatiboaren osagaiak: marka, logotipoak, bisita-txartelak, zigiluak, karpetak, orri-buruak, karpetak, gutun-azalak, enpresako zigilua, biltzeko paperak, poltsak, etab. bi hizkuntzatan euskarari lehentasuna emanez egingo dira.

Halaber, iragarkiak, argitalpenak, lan-eskaintzak, batzar-deiak, etab. euskaraz/bi hizkuntzatan euskarari lehentasuna emanez egingo dira.

Sustapen-materialetan bi hizkuntzak euskarari lehentasuna emanez testuak erabiliko dira.

Prensa-oharrak, publizitate-kanpainak, babesletzak, publi-erreportajeak, eta abarretan, euskara/bi hizkuntza euskarari lehentasuna emanez erabiliko da.

Bezeroekin, herritarrekin edota elkarteekin, beste erakundeetako langileekin, etab. egiten diren ekitaldiak, jardunaldiak, erakustazokak, erakusketak eta antzekoetan, hartzailearen arabera, euskaraz egingo dira eta salbuespen kasuetan, bi hizkuntza erabiliko dira (soilik erdal hiztunak direnean, adibidez, sarrerako eta amaierako agurrak, euskaraz egingo dira).

1.3 Ingurune digitala

Iraurgi Lantzenek kudeatzen dituen webgune eta sare sozialek honako hizkuntza-aukera izango dute:

<https://iraugiberritzen.eus> euskara eta gaztelania aukeran

<https://www.urolanprest.eus> euskara eta gaztelania aukeran

<https://urolaturismoa.eus> euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa aukeran

Halaber, sare sozialetan, honako hizkuntza hauek erabiliko dira: euskara/ gaztelania

<https://www.facebook.com/iBerritzen/>

<https://twitter.com/iBerritzen>

<https://vimeo.com/user35387242>

<https://www.linkedin.com/company/loiola-berrikuntza-fundazioa/>

2. BEZEROEKIKO (PERTSONA FISIKOAK) ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK

2.1 Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.

Gure jarduerak herritar eta bezero fisikoekin zuzeneko lotura izanik, idatziz ematekoak diren agiriak, komunikazioak, etab. bi hizkuntzatan emango zaizkio. Dena den, hartzaileak gaztelaniazkoa eskatuko balu, eskubidea izango luke idatziak hautatutako hizkuntza ofizialean eskuratzeko. Era berean, Iraurgi Lantzen euskaraz bidalitako idatzizkoei euskaraz erantzungo zaiela bermatzen dugu.

2.2 Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harremanak produktua edo zerbitzua eskaintzeko orduan.

Iraurgi Lantzeneko langileak aurrez aurre edo telefono bidez, euskaraz hitz egingo dio herritarrari edo bezero fisikoari. Hau da, lehen hitza beti euskaraz izango da. Salbuespen egoeratan, hau da, euskaraz komunikatzeko gaitasunik ez duten herritar edo bezero fisikoekin, solasaldia bere hizkuntzan jarraituko da.

3. BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

3.1 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia.

Euskara hutsean sortuko ditugu honako hauek:

- Errotulazio txikia (armairuak, apalak, karpetak, artxihoak, etab.), horma-irudiak, eta antzekoak.
- Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa.
- Sareko edo euskarri informatikoko karpetak ere euskaraz izendatuko dira.

3.2 Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala.

Iraurgi Lantzeneko barne-komunikazio guztiak euskara hutsean izango dira. Atal honetan sartzen dira:

- Agiri-guneak: ohar- eta iragarki-taulak. Iradokizunen postontzia. Posta elektronikoz egindako jakinarazpenak
- Iraurgi Lantzenek sortutako deialdiak, gai-ordenak eta aktak, partaideek daramatzaten txostenak, gaiari buruzko dokumentuak, etab.
- Idazki laburrak: e-mailak, oharrak, jakinarazpenak, egiaztagiriak, inprimakiak.
- Idazki luzeak: memoriak, txostenak, proiektuak, etab.
- Enpresaren dokumentazio ofiziala: eratze-eskiriturak gaztelaniaz daude eta estatutuak ere bai.
- Kalitate, ingurumen, prebentzio eta abarren inguruko dokumentazioa.

3.3 Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala.

Iraurgi Lantzeneko lan-bileretako ahozko harremanetako hizkuntza euskara izango da. Horrez gain, lankideen arteko lan-esparruko harreman guztiak euskara hutsezkoak izango dira.

3.4 Baliabide informatikoak

Aukera dagoenean, erabili beharreko aplikazioak eta programak euskaraz instalatu eta erabiliko dira: bai aplikazio orokorrak (Outlook, Windows, Office, etab.) eta baita berariazkoak ere.

4. PERTSONEN KUDEAKETA

4.1 Pertsonen kudeaketa

Langile etorri berriei Iraurgi Lantzenen informazio guztia emango zaie. Informazio horren baitan dago hizkuntza-politikaren gaia.

Lege-dokumentuak: kontratuak euskaraz, nomina bi hizkuntzatan, lan- edo lan-baldintzen gaineko hitzarmenak euskaraz, langilearentzako Gizarte Segurantzakoak gaur egun gaztelaniaz bidaltzen dizkigute eta Ogasunari dagozkion dokumentuak euskaraz emango dira.

Idatzi estandarizatuak, nomina, ordutegi-kontrola, egiaztagiria, telefono-zerrendak, eta antzekoak euskara hutsean izango dira.

Langileak banaka bete beharreko inprimakiak: lizentzia-baimenak, bidaia- eta otordu-ordainketak, iradokizunak, eta antzekoak. Zabalkunde handiko komunikazioak: lanpostu-eskaintzak, e-jakinazpenak, lan-ordutegi eta egutegiak, aseguru eta kotizaziozkoak, bilera-deiak eta antzekoak euskara hutsean izango dira.

4.2 Laneko prestakuntza

Langile berri bat laneratzean, harrera jasoko du (harrera-gidaliburua eta ahozko azalpenak). Bertan jasoko dira enpresako informazio orokorra eta hizkuntza-politika.

Laneko prestakuntza: prestakuntza saioak euskaraz izateko eskaria egingo du Iraurgi Lantzenek eta prestakuntzan erabili beharreko idatziak eta ahozko jarduna euskarazkoak izatea eskatuko du.

5. KANPO-HARREMANAK

5.1 Administrazioa

Iraurgi Lantzenek EAEko administrazio desberdinekin dituen idatzizko eta ahozko harremanak euskarazkoak izango dira.

5.2 Erakunde pribatuak: Bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.

Iraurgi Lantzeneko **bezeroak**: hainbat tokitako bezeroak ditugunez, aukera dagoen guztietan, hauekiko harremanak ahoz eta idatziz euskaraz izango dira.

EAEko produktu eta zerbitzu-**hornitzaileei** dagokionez, eskaria egingo zaie ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izan daitezzen. Ahozkoa bermatzeko aukerarik ez dagoenean, gutxienez, idatzizko euskarriak euskaraz eskatuko dira.

5.3 Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.

Aukera dagoen guztietan, erakundeko kanpo-harremanak euskara hutsean izango dira, bai ahoz eta bai idatziz.

Era berean, Iraurgi Lantzeni euskaraz bidalitako idatzizkoei euskaraz erantzungo zaiela bermatzen dugu.

6. KUDEAKETA-SISTEMA

6.1 Estrategia

Hizkuntza-politika erakundeak duen gaineratiko plangintza eta ikuspegiekin lotuta dago, eta, sorreratik, bere ikuspegi eta filosofiaren baitan dagoen gaia denez, langile berria laneratzean, informazio garrantzitsuenarekin batera, hizkuntza-politikaren gidaliburua eta azalpenak emango zaizkio. Sistematikoki egingo da aurrerapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa. Horrez gain, Iraurgi Lantzenek interes-talde guztiei jakinaraziko die hizkuntza-politika duela eta erakundearen zerbitzu- eta lan-hizkuntza nagusia euskara dela. Aukera dagoen guztietan irizpide hori izango da nagusi.

Halaber, Euskara Batzordea izendatuta daukagu eta hauek dira batzordearen eginkizun nagusiak:

- Euskara-planaren koordinazioa modu koherentean burutzea
- Helburuen, ekintzen eta epeen jarraipena egitea eta behar izanez gero, ekintza zuzentzaileak proposatzea.
- Euskara-planaren komunikazioa egitea erakundeko ohiko bideetatik.
- Erakundearen Hizkuntza-egoera zertan den jakiteko informazioa ustiatzea eta ondorio nagusietara iristea. Ondorio horietatik abiatuta, hurrengo fase batean landu daitezkeen maila nahiz egiteko posibleen proposamena egitea zuzendaritzari.

Iraurgi Lantzenek kudeaketa aurreratuan oinarritutako hizkuntzen kudeaketa garatzeko helburua dauka epe ertainean. Hori horrela, kudeaketa aurreratua lantzen dugun neurrian, gure lan-sisteman txertatzeko eta hizkuntzen kudeaketa zehar-lerro moduan garatzeko aukera izango dugu.

6.2 Bezeroak edo herritarrak eta produktua edo zerbitzua

Produktuak edo zerbitzu berriak sortzerakoan, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz, euskararen gaia presente izango da, Iraurgi Lantzeneko balioekin bat eginez.

6.3 Pertsonak

Langileen kontratazioari dagokionez, langilea kontratatu aurretik, euskarazko ezagutza eta gaitasuna bermatuko dira (euskarazko titulu ofizial bidez edo dagokion proba eginez); izan ere, Iraurgi Lantzeneko langilea izateko, ezinbesteko baldintza da gutxienez, EGA edo C1 maila izatea.